

Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA

Han ere kulturgileak oinutsik

Markos Zapiainek *Le Magazine Littéraire*-ren azken alea komentatzen dit. Idazle frantsesen txirotzeari buruzko errepor-taje bat dator bertan: herrialde handi, ustez kulturazale eta bere idazleak zain-tzen dituen horretan, gero eta gehiago omen dira estu eta larri bizi direnak. Gon-court saria irabazitakoak ere ba omen dira, nekez iristen direnak hil amaierara. Artiku-luak badu sentsazionalismo apur bat: jatekoa edo liburuak erosi aukeratu behar duenaren egoera, zahartzaroan pobrezia gorrian amai-tu zuen ospetsuaren kasua eta abar. Dena dela, eta merkekeriak alde batera utzita ere, egia izango da aldizkariak dioena: gero eta titulu gehiago ateraz-tzen da, hemen bezala han, baina tiradak apalduz doaz eta, horrekin batera, egile-eskubideak ere behe-rantz: %10aren orde %8 ordaintzea bihurtu omen da orain normalena; eta horrez gainera, gainbehera eko-nomikoaren mamua...

Hori baldin bada Frantziako panorama, zer ez ote dugu euskal-dunok? Honezkero jasoko zuten euskal idazle gehienek aurreko urteko salmenten likidazioa; idazle frantziarrak kexu omen dira, idaz-leen erdia ez delako iristen hileko SMIC edo gutxieneko soldata irabaztera (1.300 euro pasatxo). “1.300 euro hileko?” galde-tuko lukete euskal idazle gehienek, ikusiz



DANI BLANCO

bere liburu guztien urte osoko irabaziak ez direla kopuru horretara iristen.

“Eta? –esango lidake deabruaren aboka-tuak buru barrutik–. Zer nahi duk ba? Herri txiki batean jaio bazarete, hizkuntza ñimiño bat hautatu baduzue, kultura xixtrin bateko partaide baldin bazarete...” Egia da, bai, ez daukagula erraza. Sasoi batean letra-kontuo-tan sartzen ginenok ez genuen planteatzen ere hortik bizitzeko aukera. Gure belaun-dian Aristi izan zen lehena, aurretik Atxaga, ondotik mordoxka bat ausartu dira. Nik ez dut ezagutzen bon-bonkerian bizi den inor; aitzitik, bizimodu austeroa egiten dute, eta era guztietako enkarguak onartu, beren fakturak ordaindu ahal izateko: telebistarako gidoiak, egunkarietako zutabeak, irratietako tertuliak, handik edo hemendik eskatutako idazkiak...

Orain, berriz, behi gizenen aroa pasatu dela esaten digute, eta kri-sia bereziki krudela izan ohi dela lehendik ere oparoaldirik bizi ez zuenarekin. Garai latzak adminis-trazioari eskupeko eske joateko, alde batera utzita ere agintari berriek horretarako borondate handirik duten edo ez duten.

Eta, halaz guztiz, gure sortzaileak zaindu behar ditugu, eta kultur azpiegiturei zutik eutsi. Ez daukat errezetarik, ez bada talentua, ahalegina, ilusioa eta auzolana. ■

Gure belaunaldian Aristi izan
zen lehena, aurretik Atxaga,
ondotik mordoxka bat ausartu
dira. Nik ez dut ezagutzen
bon-bonkerian bizi den inor

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Berrogei urte. Banaka iga-rotakoak. Ikastaldika. Herri Urratsek erdia gehi bost, hogeita bost. Hala dut uste. Urteka. Eta urtean behin bestela ikusten ez ditugun lagunak agurtzeko parada. Aurten ere, laurogeitik hirurogeita hamarretik baino gertuago dauden batzuekin egoteko aukeran izan gara, herritik autobu-sez etorritakoak. Eta txosnatan, lanean alerik galdu ez dutenak. Anonimoak ez diren militanteak. Ez legoke gaizki omenalditxo bat antolatzea ezagutzera emate-ko, argira ekartzeko ezinbesteko militantziak jarraipe-na izan dezan. Izan ere, zientotik gorako hauei zor

Seaskak

diegu praktikan ekimenaren arrakas-ta, publikoki gutxi batzuek ordezkaz-tzen duten hori. Eta ez litzateke motibazio txikia izango lehen ikasle eta orain guraso direnentzat aurrean duten bidea egiteko kemena har dezaten. Ereduak hor ditugu, lehen seme-alabak eta orain bilobak Seaskan dituztenak, Senpereko lakuaren inguruan urtean behin hutsik egin gabe lanean arituta-koak. Nik nire motzean badut dozena bat buruan, eta luzean ibilitakoek osatu lezakete errexxi taldea, ehun azietaz berdindu ez litzatekeena. Ederra izan liteke, Ur-Hegiako bipak horiek zerbizatzen ikusteak. Histori-koa, beharrezkoa bere utopikoan. ■